

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

211

AGINDUA, 2024ko abenduaren 19koa, Hezkuntzako sailburuarena, Irungo udalerriko «Erain» Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau unitate gehitzeagatik eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntza iraungitzeagatik.

Irungo udalerriko «Erain» Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren (kode zenbakiak: 012439 eta 20002384) titularra den «Erain, S.A.» erakundeak eskatuta hasitako espedientea aztertu da. Espediente horretan, ikastetxe horri emandako baimena aldatzeko eskatzen da, unitateen gehikuntzagatik eta irakaskuntzak iraungitzeagatik.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen agiriak erantsi zaizkio espedienteari, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek txostena egin dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duena; 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa, otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuak aldatua; otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituena, eta gai horretan aplikatzekoak diren indarreko gainerako legeak aztertu ondoren, horiek horrela hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2025-2026 ikasturtetik aurrera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4 unitate gehitzeko eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntza iraungitzeko baimena ematea, Irungo udalerriko (Gipuzkoa) «Erain» Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari. Une horretatik aurrera, ikastetxe hori Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, erregistroko datu hauekin:

Kode-zenbakiak: 012439 (EAE) eta 20002384 (unibertsala).

Izen orokorra: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoak: «Erain».

Titularra: «Erain S.A.».

Helbidea: Ventas Auzoa, 94.

Udalerrria: Irun.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Baimendutako irakaskuntzak:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 8 unitate, 240 ikaspostutarako edukierarekin.
- Batxilergoa: Zientziak eta Teknologia eta Giza eta Gizarte Zientziak modalitateak, 4 unitate, 140 ikaspostutarako edukierarekin.
- Hezkuntza Berezia: gela ireki bat.

Bigarrena.– Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, ikastetxeek ezin izango dute beren burua identifikatzeko beren erregistro-inskripzioetan agertzen direnez bestelako izendapenik erabili.

Hirugarrena.– Ikastetxearen erakunde titularrak indarrean dagoen araudia bete beharko du, ikaspostu-kopuruari, ekipamenduari, titulazio akademikoari, irakasleen hizkuntza-eskakizunari eta indarrean dagoen eta aplikagarri den gainerako legeriari dagokienez. Gainera, emandako baimena berrikusteko eskatu beharko du, ikastetxearen erregistroko edozein datu aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetu egingo litzateke.

Laugarrena.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarrean dagoen legerian adierazitako higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna ikastetxearen erakunde titularri dagokio.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan jasotako baimen-emateak ez du esan nahi, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen edo dirulaguntzen deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 19a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.